

URKUZU - GARAKOI AUZO BATZARRA

Igorren, 2011ko urri lehenengoaren 21ean

Urkuzuko txokoa hogeitabat auzotar batu dira udal gobernuak dakazan proposamenak entzuteko eta euren ekarpenak egiteko. Bilduko bost ordezkari etorri dira, EAJ-PNVtik bat eta Igorre Danontzat plataformak bi ordezkari izan ditu auzo batzarrean.

Diru sarrerak nondik datozen azaldu dau alkateak, grafiko baten bidez. Tasak eta zergak %36, udalak tramitetan dauzananak %45, inbertsinoetarako diru laguntzak %13 eta besteak %6.

Gastuen atalean be, obretako inbertsinoak %30 daroa, gastu korrientean %35, soldatak eta prestakuntza %23.

Udal gobernuak detektau dauazan gabezien artean aipatu diranak: Auzoko sarreran seinalizazio kartel falta dagoala, oinezkoentzat peligerosoa dala N-240 bidea gurutzatzea. Auzorako bidean bankuak jartzea, zubiaren estutasuna be aitatu da, errekatxoaren baztarrak txarto dagozala, auzoak uriolakaz problemak izan dituala, informazio panelen kokapen eskasa, kontenedoreak kaminotik hurregi dagoala eta plazako aparkalekuak auzotarren arteko tirabirak sortzen dauazala gaur egun.

Auzotar bat kaltetuta sentidu da egoera honeguz eta lurreko markak zelan ipini be proposatu dau. Alkateak udalak dibujoa eginda dagoala adierazo dau.

Garakoin ikusten diran gabeziak: autobusaren geralekua non ipini, Ebay enpresaren egungo egoera, zubi zaharra botatzea, oinezkoen bidea garbitu barik dagoala,

Garakoiko zubi barriak ezinegona sortu dau herritarren artean. Ez dabe uste herritar batzuk adierazotakotik zubi barriak uriolen problema soluzionauko dauanik, oinezkoentzako zubia eskatzen dabe herritarrek baina udal gobernu egitearen alde dagoala esan dau alkateak epe luzera bada be. Panel informatiborik ez eukitea be kontuan hartu da.

Ongizate eta bardintasunaren zinegotzia dan Soraya Lizundiak orain arteko beste auzoetan moduan, Igotransen aurkezpena egin dau eta indarkeriaren kontrako protokoloa be azaldu dau.

Alkateak, bide generaleko zebrabidea eta semaforoa egiteko proposamena azaldu dau, auzotarrek guztiz beharrezkoa ikusten dabe; zubi barrie eta enkauzamientoaren nondik norakoak be argitu dauz eta lur zatiren baten errekalifikazioa (industrialala agian) be mahai gainean jarri dau, ze iritzi dagoen ikusteko, oraindik ezer zehaztuta ez badago be.

Saneamenduen ganeko informazioa emon da, patzuergoak egin dauan proposamenaren ganean, etxe batzuetara gutuna heldu dala eta.

Industria lekuaren erdian beste edifizio bat ipintearen guztiz kontra agertu dira auzotarrak.